

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onesten diren 2026 urtetik 2027 urtera biak barne, mendetasun-egoeran dauden edo desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuak — GIZATEK zerbitzuan sartutakoak—erosteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, bere eskumenen esparruan eta dituen eginkizunen artean, mendekotasun eta/edo desgaitasun egoeran dauden pertsonen laguntza-zerbitzuak eta gizarte-prestazioak ematea.

Laguntza-produktuak erosteko dirulaguntzen arauketa prebentzioa egin eta autonomia pertsonala sustatu beharretik dator, eta jarduna mugatuta edo murriztuta duten pertsonak gizartearen integratu beharraren ondorio da. Horretarako, mendekotasunari aurrea hartzeko edo/eta desgaitasun-egoerak eragiten dien gabezia arintzeko pentsatu eta diseinatu diren produktuak eskaintzen zaizkie.

Argi dago, beraz, egoera horien arreta, hau da, laguntza-produktu horiek eskuratzea ezin dela atzeratu Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura ebatzi arte, dirulaguntza horien izaerak eskabideak jaso ahala ematea eskatzen baitu, betiere oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta onartutako aurrekontu-zuzkiduraren mugarekin.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de subvenciones destinadas a la adquisición de productos de apoyo para personas en situación de dependencia o con discapacidad durante los años 2026 - 2027, ambos inclusive, integrados en GIZATEK.

La Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de sus competencias y dentro de sus funciones, tiene atribuida la ejecución de servicios de atención y prestaciones de naturaleza social a las personas en situación de dependencia y/o discapacidad.

La regulación de las subvenciones destinadas a la adquisición de productos de apoyo surge como consecuencia de la necesidad de prevenir la dependencia y promocionar la autonomía personal e integrar socialmente a personas con limitaciones o restricciones en su actividad mediante la aplicación de productos de apoyo, pensados y diseñados de forma específica para paliar el déficit provocado por su situación de dependencia y/o discapacidad.

Parece claro, por tanto, que la atención de estas situaciones, es decir, la adquisición de estos productos de apoyo no puede quedar aplazada en el tiempo a la resolución del procedimiento de concurrencia competitiva previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, puesto que la naturaleza de estas subvenciones requiere su concesión a medida que se vayan





Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da gizarte-premia horri erantzutea, eta, horretarako, dirulaguntzen deialdi publiko baten oinarri arautzaileak onartzea, autonomia sustatzeko eta mendetasunari laguntzeko mota horretako laguntza ekonomikoak ahalbidetzeko.

Aurreikusten da horrelako laguntza ekonomikoak eskuratu ahal izango dituztela mendekotasuna duten pertsonak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta mendekotasun-egoeran egon gabe % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek ere, Desgaitasun-maila aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, Alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten pertsonen bizikaltatea hobetzeko urriaren 30eko 3/2024 Legea eta urriaren 28ko 969/2025 Errege Dekretua aplikatuz (969/2025 Errege Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira prozesu itzulezinak eta zainketa-konplexutasun handikoak definitzen dituzten irizpideak), ondorio guztietarako kontuan hartuko da lege honen aplikazio-eremuan dauden pertsonak ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutela, bai eta I. mendekotasun-maila ere, gaixotasunaren diagnostikotik edo dagokion prozesutik.

Era berean, pertsona horiek Foru Dekretu honen I. eranskineko katalogoan laguntza-produktu bakoitzerako adierazitako baldintza espezifiko guztiak betetzen dituztela ulertzen da.

recibiendo las solicitudes, siempre y cuando reúnan los requisitos establecidos en las bases reguladoras y con el límite de la dotación presupuestaria aprobada.

Consecuentemente, se estima necesario dar respuesta a esta necesidad social y, para ello, aprobar las bases reguladoras de una convocatoria pública de subvenciones, que permita este tipo de ayudas económicas de promoción de la autonomía y apoyo a la dependencia.

Se prevé que puedan acceder a este tipo de ayudas económicas las personas con dependencia, en virtud de lo dispuesto en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, así como en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia y, aquellas otras personas que, sin encontrarse en esa situación de dependencia, presenten una discapacidad igual o superior al 33%, según lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad.

No obstante, en aplicación de la Ley 3/2024, de 30 de octubre, para mejorar la calidad de vida de personas con Esclerosis Lateral Amiotrófica y otras enfermedades o procesos de alta complejidad y curso irreversible y el Real Decreto 969/2025, de 28 de octubre, por el que se establecen los criterios que definen los procesos irreversibles y de alta complejidad de cuidados, se considerará a todos los efectos que las personas incluidas en el ámbito de aplicación de esta ley presentan una discapacidad en grado igual o superior al 33 por ciento, así como un grado I de dependencia, desde el diagnóstico de la enfermedad o proceso correspondiente.

Igualmente, se considera que dichas personas cumplen todos los requisitos específicos señalados para cada producto de apoyo en el catálogo incluido en el Anexo I del presente Decreto Foral.





Foru dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako erregulazio onaren printzipioei eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan aurreikusitako erregulazioari erantzuten die.

Foru-dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoa.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako generoaren araberako inaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak aplikatu dira, eta, hura izapidetzean, «Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena» gehitu da, Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa arautzen duen azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen dena.

Era berean, bete egiten da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikotako Foruzko Jardute-Erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 artikulua ezartzen duenez, lurralde historikoei dagokie, beren lurraldearen barruan, gizarte-laguntzaren arloko erakunde erkideen legeria betearaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zuzeneko ekintzari kalterik egin gabe.

Dekretu hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeek Hautapen, Antolaketa, Araubide eta

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y a la regulación prevista en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales y en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

En la elaboración del presente decreto foral se ha tenido en cuenta lo establecido en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

A su vez, se han aplicado las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres y en su tramitación se incorpora el «Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género» al que hace referencia el artículo 6 del Decreto Foral 112/2024, de 14 noviembre, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Igualmente, se da cumplimiento a lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

El artículo 7.c.1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, establece que corresponde a los Territorios Históricos la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de asistencia social, sin perjuicio de la acción directa de las Instituciones Comunes del País Vasco.

El presente decreto se aprueba al amparo de lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de





Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Erregelamendu Organikoa onartzen duen ekainaren 26ko 67/2025 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean onartu da.

Horrenbestez, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiako Gobernu Kontseiluak 2025eko ...
...an egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onestea.*

Onartzea 2026 urtetik 2027 urtera biak barne, mendetasun-egoeran dauden edo desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuak —Gizatek zerbitzuan sartutakoak—erosteko dirulaguntzen deialdi publikoaren oinarri arautzaileak.

Xedapen gehigarriak.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aurrekontu partida.*

Aurrekontuei buruzko 2009ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, foru-dekretu honen babesean 2026. eta 2027. urteetan ematen diren dirulaguntzak honako aurrekontu-partida honen kargura emango dira: Saila (03), Organikoa (0304), Programa (231109), Ekonomikoa (76100), PEP (2008/0183); partida horren izendapena gehienez ere hiru milioi eta bostehun mila (3.500.000,00 €) euro izango da. Gehieneko zenbateko horretatik, 2026ko urtekoari milioi bat zazpiehun eta berrogeita hamar mila (1.750.000,00 €) euro egotziko zaizkio, eta 2027ko urtekoari milioi bat zazpiehun eta

13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral 67/2025, de 26 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Acción Social, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral de Bizkaia en sesión de Consejo de Gobierno celebrada el día ...

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Aprobar las bases reguladoras de la convocatoria pública de subvenciones destinadas a la adquisición de productos de apoyo para personas en situación de dependencia o con discapacidad durante los años 2026 - 2027, ambos inclusive, integrados en Gizatek.

Disposiciones adicionales.

Disposición adicional primera. *Partida presupuestaria.*

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, las ayudas económicas individuales que se concedan durante los años 2026 y 2027 al amparo del presente decreto foral, se harán efectivas con cargo a la partida presupuestaria consignada como Departamento (03), Orgánico (0304), Programa (231109), Económico (76100), PEP (2008/0183), cuya asignación tendrá como límite la cantidad de tres millones quinientos mil euros (3.500.000,00 €). De la cantidad total máxima serán imputables a la





berrogeita hamar mila (1.750.000,00 €) euro.

anualidad 2026, la cantidad de un millón setecientos cincuenta mil euros (1.750.000,00 €), y a la anualidad 2027 la cantidad de un millón setecientos cincuenta mil euros (1.750.000,00 €).

Bigarren xedapen gehigarria. *Dirulaguntzak eteteko baldintza.*

Foru-dekretu honetan garatutako dirulaguntzak eman ahal izateko, kreditu nahikoa eta egokia egon beharko da, dagokion ekitaldian, dekretutik eratortzen diren betebeharrak finantzatzeko, hala izan behar duela xedatzen baitu Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testuategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56.3. artikulua.

Disposición adicional segunda. *Condición suspensiva de las subvenciones.*

La concesión de las subvenciones a las que se refiere el presente decreto queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente, conforme a lo dispuesto por el artículo 56.3 del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Diru laguntzen hainbat urtetarako izaera.*

Urte batzuetarako dirulaguntzat hartuko da mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzako GIZATEK zerbitzuko laguntza-produktuak erosteko dirulaguntzetarako kreditua.

Disposición adicional tercera. *Carácter plurianual de la subvención.*

El crédito destinado a las subvenciones para adquisición de productos de apoyo para personas en situación de dependencia o con discapacidad, integrados en GIZATEK, tendrán la consideración de subvención plurianual.

Xedapen iragankorrak

Xedapen iragankor bakarra. *Eskaeren ebazpena.*

2025ean laguntza-produktuetarako aurkeztutako dirulaguntzen eskaerak foru-dekretu honen baldintzen eta betekizunen arabera ebatziko dira, baldin eta foru-dekretua indarrean jarri aurretik ebatzi ez badira.

Disposiciones transitorias

Disposición transitoria única. *Resolución de solicitudes.*

Las solicitudes de subvención presentadas en 2025 se resolverán de acuerdo con las condiciones y requisitos del presente decreto foral siempre que no hayan sido resueltas con anterioridad a la fecha de su entrada en vigor.

Xedapen indargabetzaileak

Disposiciones derogatorias





Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauen indargabetzea.*

Derogaturik geratzen dira foru dekretu honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente decreto foral.

Azken xedapenak

Azken xedapeneko lehenengoa. *Ahalmena ematea.*

Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari baimena ematen zaio, beren-beregi, erantsitako eranskinei eragiten dieten foru-dekretu honen aldaketak foru-agindu bidez ebazteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Ezinbestekoa izango da foru-agindu hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Halaber, ahalmena ematen zaio Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuari foru-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko, betearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapeneko bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, baina inoiz ez 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen eta 2027ko abenduaren 31ra arte iraungo du indarrean.

Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitaciones para su desarrollo.*

Se autoriza expresamente a la diputada foral de Acción Social, para que, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, resuelva mediante orden foral la modificación del presente decreto que afecte al anexo adjunto, siendo necesaria, en todo caso, su correspondiente publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Asimismo, se faculta a la diputada foral del Departamento de Acción Social para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Este decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y nunca antes del 1 de enero de 2026, extendiéndose la vigencia hasta el 31 de diciembre de 2027.





2026 URTETIK 2027 URTERA BIAK BARNE, MENDEKASUN-EGOERAN DAUDEN EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA-PRODUKTUAK –GIZATEK ZERBITZUAN SARTUTAKOAK–EROSTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK.

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES DESTINADAS A LA ADQUISICIÓN DE PRODUCTOS DE APOYO PARA PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA O CON DISCAPACIDAD DURANTE LOS AÑOS 2026 - 2027, AMBOS INCLUSIVE, INTEGRADOS EN GIZATEK.

1. oinarria. *Xedea*.

Oinarri hauen bidez, mendekasun-egoeran dauden eta/edo gutxienez % 33ko desgaitasuna duten pertsonentzako dirulaguntzetarako deialdi publikoa arautzen da, lehia askearen araubidean, autonomia pertsonala areagotzeko eta ingurunean irauteko laguntza-produktuak eskuratzeko.

Base 1. *Objeto*.

Mediante las presentes bases, se regula la convocatoria pública de subvenciones, en régimen de libre concurrencia, a personas en situación de dependencia y/o con una discapacidad de al menos el 33%, para la adquisición de productos de apoyo destinados a aumentar su autonomía personal y la permanencia en su entorno.

2. oinarria. *Laguntza-produktuaren definizioa*.

1. Oinarri hauen ondorioetarako, laguntza-produktutzat joko da beren-beregi fabrikatu den edo merkatuan eskura daitekeen edozein produktu (besteak beste, gailuak, ekipoak, tresnak eta softwarea), desgaitasuna edo mendekasuna duten pertsonak euren erabiltzen dutena edo pertsona horientzat erabiltzen dena, honetarako:

- parte-hartzea errazteko;
- gorputzeko funtzioak/egiturak eta jarduerak babesteko, laguntzeko, entrenatzeko, neurtzeko edo ordeztzeko bada, edo;
- urritasunak, jardute-mugak edo parte hartzeko murriztapenak prebenitzeko.

2. Oinarri hauen ondorioetarako, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen laguntza-produktutzat joko merkatuan herritar guztiei eskaintzen zaizkien produktu estandarrek.

Base 2. *Definición de producto de apoyo*.

1. Se entenderá por producto de apoyo, a los efectos de las presentes bases, cualquier producto (incluyendo dispositivos, equipo, instrumentos y software) fabricado especialmente o disponible en el mercado, utilizado por o para personas con discapacidad y/o dependencia, destinado a:

- facilitar la participación;
- proteger, apoyar, entrenar, medir o sustituir funciones/estructuras corporales y actividades;
- prevenir deficiencias, limitaciones en la actividad o restricciones en la participación.

2. No se entiende por producto de apoyo subvencionable, a los efectos de las presentes bases, aquel producto estándar que se encuentre disponible en el mercado para la generalidad de la población.





3. oinarria. *Laguntza-produktuen katalogoa.*

1. Oinarri hauen I. eranskinean jasotzen da laguntza-produktuen katalogoa.

2. Lehen eranskineko katalogoan, laguntza-produktuak sailkatzen dira, UNE-EN ISO 9999:2023 arauan definitutako tipologiaren (mota, azpimota, zatiketa) eta horietako bakoitzean sartzeko baldintzen arabera.

3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzat dira produktu horiek, baldin eta betekizun orokorrak zein espezifikoak betetzen badituzte.

4. oinarria.- *Produktu bastertuak.*

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzetatik kanpo geratzen dira jarraian zehazten diren gailuak, laguntza-produktuak eta konponbide teknikoak:

a) Egokitasunari buruzko txosten teknikoan agertzen ez diren produktuak edo txosten horretan desgokitutako direnak.

b) Laguntza-produktuak instalatzeko erabiltzen diren elementuak.

c) Osasunaren arloko profesionalek bakarrik erabiltzen dituzten laguntza-produktuak eta tresnak.

d) Kokleako inplanteak eta haien kanpoaldeko osagaiak (kanpoko prozesadorea, mikrofonoa eta antena).

e) Teknikoak ez diren konponbideak, besteak beste: laguntza pertsonala, gida-txakurrak edo ezpainen irakurketa.

5. oinarria. *Onuradunen baldintza orokorrak.*

Base 3. *Catálogo de productos de apoyo.*

1. El catálogo de productos de apoyo se encuentra recogido en el Anexo I de las presentes bases.

2. En el catálogo del Anexo I se clasifican los productos de apoyo de acuerdo con la tipología (clase, subclase, división) definida en la norma UNE-EN ISO 9999:2023 y los requisitos de acceso a cada uno de ellos.

3. Estos productos van destinados a las personas con dependencia o discapacidad que cumplan los requisitos tanto generales como específicos.

Base 4.- *Productos excluidos.*

Los siguientes aparatos, productos de apoyo y/o soluciones técnicas quedan expresamente excluidos de las ayudas económicas reguladas en la presente convocatoria:

a) Productos no incluidos en el Informe Técnico de Idoneidad, o que consten en el mismo como no idóneos.

b) Artículos utilizados para la instalación de productos de apoyo.

c) Productos de apoyo e instrumentos utilizados, exclusivamente, por profesionales de la salud.

d) Los implantes cocleares y los componentes externos de los mismos (procesador externo, micrófono y antena).

e) Soluciones no técnicas, como asistencia personal, perros-guía o lectura labial.

Base 5. *Requisitos generales de las personas beneficiarias.*





Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan daitezke honako baldintza orokor hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

1. Mendekotasun-egoera aitortuta izatea 39/2006 Legeak (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea, abenduaren 14koa) ezarritako edozein gradutan, edo % 33ko desgaitasun-egoera izatea, gutxienez, 888/2022 Errege Dekretuan (Mendetasuna aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen Errege Dekretua, urriaren 18koa) ezarritakoaren arabera.

Kontuan hartuko dira jada indargabetuta dagoen 1971/1999 Errege Dekretuak (Mendetasuna aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedurarena, abenduaren 23koa) ezarritakoaren arabera egindako desgaitasun-ebaluazioak, harik eta indarrean den urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren arabera desgaitasun-gradua berritzeko prozedura ebatzi arte (haren bidez, mendetasuna aitortzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzen da), Kasu batean zein bestean, egoera hori ebazpena eman aurretik espresuki aitortuta egon behar da.

Hiru urtetik beherakoen kasuan, 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa ezarriko da.

Mendetasunari edo desgaitasunari buruzko ebazpena Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo eman bada, espedientea lekualdatzeko eskatuko da.

Era berean, Alboko Esklerosi Amiotrofiakoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten pertsonen bizikalitatea hobetzeko urriaren 30eko 3/2024 Legearen 3.2 artikulua eta urriaren 28ko 969/2025 Errege Dekretua (zeinaren bidez

Podrán ser personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente convocatoria aquellas personas físicas que reúnan los siguientes requisitos generales:

1. Encontrarse en situación de dependencia valorada en cualquiera de los grados establecidos en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, o encontrarse afectada por una situación de discapacidad de, al menos, el 33%, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad.

Serán tenidas en cuenta las valoraciones de discapacidad realizadas conforme al ya derogado Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad hasta que no se haya resuelto el procedimiento de revisión del grado de discapacidad conforme al vigente Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, situación que en ambos casos deberá estar reconocida expresamente con anterioridad a la fecha de resolución.

Para menores de tres años se estará a lo dispuesto en la disposición adicional decimotercera de la citada Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.

En aquellos casos en los que la resolución de dependencia o discapacidad se haya dictado fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, se exigirá traslado de expediente.

Igualmente, en aplicación del artículo 3.2 de la Ley 3/2024, de 30 de octubre, para mejorar la calidad de vida de personas con Esclerosis Lateral Amiotrófica y otras enfermedades o procesos de alta complejidad y curso irreversible y del Real





ezartzen baitira prozesu itzulezinak eta zainketa-konplexutasun handikoak definitzen dituzten irizpideak) aplikatuz, ondorio guztietarako ulertuko da lege honen aplikazio-eremuan dauden pertsonen, dagokion gaixotasunaren edo prozesuaren diagnostikotik, betetzen dituztela puntu honetan eskatzen diren baldintzak.

2. Laguntza-produktuaren (edo produktuen) Egokitasunari buruzko Txosten Teknikoa (ETT) izatea eskabidea aurkeztean; autonomia pertsonala sustatzeko laguntza-produktuei buruzko informazioa eta orientazioa emateko foru zerbitzu publikoko (aurrerantzean, Gizatek zerbitzua) teknikari eskudunek egingo dute txosten hori, halako txostenak erregulatzen dituen foru-araudi bereziarekin bat. Txosten horretan, identifikatuta jaso behar da zein laguntza-produktutarako (edo produktuetarako) eskatzen den dirulaguntza.

Etxeko irisgarritasuna hobetzeko laguntza-produktuen kasuan, egokitasunari buruzko txosten teknikoan adierazi behar da zer egokitzapen mota egin gura den eta haren edukia zehaztu behar da, zehaztasun nahikoarekin. Egokitasunari buruzko txosten teknikoa edozein obra egin baino lehen eman beharko da.

Egokitasunari buruzko txosten teknikoak urtebeteko (1) iraupena izan dezake, txostena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Entzumenerako laguntza-produktuen kasuan (22 06 06), (22 06 12) eta (22 06 15), Egokitasun-Txosten Teknikoaren ordeztasun, audiometria binaural grafiko bat jarriko da, kolegiatutako medikuek edo establezimendu espezializatuek emana. Grafiko horretan jasota geratuko da entzumen bakoitzaren entzumen-galera, jardueraren mugetan entzumen-hipoakusiagatik 25 puntu edo gehiagoko entzumen-urritasuna eragiten duena, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Decreto 969/2025, de 28 de octubre, por el que se establecen los criterios que definen los procesos irreversibles y de alta complejidad de cuidados, se considerará a todos los efectos que las personas incluidas en el ámbito de aplicación de esta ley, desde el diagnóstico de la enfermedad o proceso correspondiente, cumplen los requisitos exigidos en este punto.

2. Estar en posesión, en el momento de presentar la solicitud, del Informe Técnico de Idoneidad (ITI) del producto de apoyo o, en su caso, productos de apoyo, emitido por personal técnico competente del Servicio Público Foral de Información y Orientación de Productos de Apoyo para la promoción de la autonomía personal, en adelante Servicio Gizatek, conforme a la normativa foral específica que lo regule, donde deberá constar su prescripción e identificación del producto de apoyo o, en su caso, productos de apoyo, para el que se solicita la subvención.

En el supuesto de productos de apoyo relacionados con la mejora de la accesibilidad en el hogar, el informe técnico de idoneidad indicará el tipo de adaptación de que se trata y deberá especificar su contenido con el suficiente detalle. El informe técnico de idoneidad deberá ser previo a la ejecución de cualquier obra.

El Informe Técnico de Idoneidad tendrá una vigencia de un (1) año contado desde el día siguiente a la notificación del mismo.

En el supuesto de productos de apoyo para audición (22 06 06), (22 06 12) y (22 06 15), se sustituirá el Informe Técnico de Idoneidad por una gráfica de audiometría binaural emitida por personal facultativo colegiado o establecimiento especializado, en la que quede constancia de la pérdida de audición de cada oído, de lo que resulte la existencia de una deficiencia auditiva igual o superior a 25 puntos por hipoacusia en limitaciones de la actividad, según lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, que establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad.





Aurreko baldintzaz gainera, 26 urtetik beherako pertsonak Gizatek dirulaguntzaren eskabidearekin batera, Euskal Osasun Zerbitzuak (Osakidetza) emandako dirulaguntzaren ebazpena aurkeztu beharko da.

3. Espainiar nazionalitatea izatea. Bestela, Europar Batasuneko herritar diren atzerritarrek Erkidegoko Atzerritarren Erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Europar Batasunekoak ez diren atzerritarren kasuan, legezko bizilekua Espainiako estatuan izatea eskatuko da.

Adingabe atzerritarren kasuan, Europako Erkidegokoak izan ala ez, ez da eskatuko legezko bizilekuaren baldintza, ez adingabearen kasuan, ez haren zaintzaile nagusiaren kasuan.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egotea, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztu baino hamabi hilabete lehenagotik, gutxienez, eta erroldatuta jarraitzea espedientearen izapidetzen den bitartean.

5 bis. oinarria. *Beste baldintza orokorrak.*

1. Etxeko irisgarritasuna hobetzearekin zerikusia duten laguntza-produktuak erosten badira, onuradunak, edo, hala badagokio, eskubide errealearen baten titularra (gozamina, etab.), etxebizitzaren %50aren jabe izan behar du, honako kasu hauetan izan ezik:

Además del requisito anterior, en casos de personas menores de 26 años junto a la solicitud de subvención de Gizatek se deberá presentar la resolución de la subvención emitida por el Servicio Vasco de Salud (Osakidetza) para la adquisición de audífonos.

3. Poseer la nacionalidad española. En caso contrario, las personas extranjeras ciudadanas de la Unión Europea deberán estar inscritas en el Registro de Extranjeros Comunitarios. Para las personas extranjeras no comunitarias, se exigirá la residencia legal en el estado español.

En el caso de menores extranjeros, ya sean comunitarios o no, no será exigible el requisito de residencia legal, ni de la persona menor de edad, ni de su persona cuidadora principal.

4. Estar empadronadas en algún municipio del Territorio Histórico de Bizkaia al menos con doce meses de antelación a la fecha de presentación de la solicitud de subvención, y continuar empadronadas durante toda la tramitación del expediente.

Base 5 bis. *Otros requisitos generales.*

1. En el supuesto de adquisición de productos de apoyo relacionados con la mejora de la accesibilidad en el hogar, la persona beneficiaria debe ser propietaria o, en su caso, titular de algún derecho real sobre la vivienda (usufructo, etc.) de, al menos, el 50% de la misma, salvo:





- a) Onuraduna ezkontidearekin, odolkidetasuneko bigarren mailara arteko aurreko edo ondorengo ahaideekin (aita/ama, semea/alaba, aitona/amona, biloba) edo odolkidetasuneko bigarren mailako albokoekin (anai-arrebak) bizitzea gutxienez bi (2) urtez. Egoera hori errola-ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.
- b) Edozelan ere, etxebizitza hori, ohiko etxebizitza izateaz gain, pertsona horren bizikidetzaren unitatearen egoitza izan behar da.
- c) Deialdi honetatik kanpo utzi dira komunetan edo jabeen erkidegoaren eremuetan eraikitze-elementuak egiteko direnak ere.

2. Ohiko etxebizitza bizitoki-erabilera kolektiboa duen establezimendu bat duten pertsonak eta eskabidea formalizatzen denean edo dirulaguntza ematen denean mendekotasuna edo ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen foru-zerbitzu publikora sartzeko onuradun-izaera foru-agindu bidez aitorturik eduki eta egoitzan sartzeko zorian dauden pertsonak I. eranskinen katalogoan jasotako laguntza-produktuen onuradun baino ezin daitezke izan. Ondoren adierazita daude produktuak:

- a) 12 23 12 laguntzaile agintea duten gorpil-aulki motordunak.
- b) 12 24 Gorpil-aulkietarako osagarriak.
- c) 12 27 Gizakiak eramateko ibilgailu batzuk.
- d) 22 03 Ikusten laguntzeko produktuak.
- e) 22 06 Entzuten laguntzeko produktuak.
- f) 22 09 ahotsaren eta hizketaren funtzioetarako laguntza-produktuak.

a) Que la persona beneficiaria conviva con cónyuge, ascendientes o descendientes hasta el segundo grado de consanguinidad (padre/madre, hijo/a, abuelo/a, nieto/a), o colaterales de segundo grado de consanguinidad (hermanos/as) durante un período mínimo de dos (2) años, circunstancia que se acreditará mediante certificado de empadronamiento.

b) En cualquier caso, dicha vivienda debe constituir su vivienda habitual y la sede de su unidad de convivencia.

c) Quedan excluidas del ámbito de esta convocatoria las obras que tengan por objeto la realización de elementos de construcción en zonas comunes o correspondientes a la comunidad de propietarios.

2. Aquellas personas cuya vivienda habitual sea un establecimiento de uso residencial colectivo, y las personas que al formalizar la solicitud o en el momento de la concesión de la subvención tengan orden foral de reconocimiento de persona beneficiaria de acceso al servicio público foral de residencias para personas dependientes o personas con discapacidad y se prevea su ingreso de manera inminente, sólo podrán ser beneficiarias de los productos de apoyo incluidos en el catálogo del Anexo I, que se mencionan a continuación:

- a) 12 23 12 Sillas de ruedas motorizadas con mando de acompañante.
- b) 12 24 Accesorios para sillas de ruedas.
- c) 12 27 Otros vehículos de propulsión humana.
- d) 22 03 productos de apoyo para la visión.
- e) 22 06 Productos de apoyo para la audición.
- f) 22 09 productos de apoyo para las funciones de la voz y el habla.





- g) 22 13 Irakurtzen, idazten eta marrazten laguntzeko produktuak. Testua eta multimedia prozesatzeko softwarea (22 13 39).
- h) 22 18 Entzunezko eta irudi bidezko informazioa grabatzeko, erreproduzitzeko eta aurkezteko laguntza-produktuak.
- i) 22 21 Aurrez aurreko komunikazioan laguntzeko produktuak.
- j) 22 33 Ordenagailuak eta terminalak. Kudeaketa softwarea (22 33 12).
- k) 12 12 Ibilgailua osagarriak eta egokitzenak.

3. Ibilgailu motordunen egokitzenari dagokionez (12 saila, 12 azpisaila):

Eskatzailearen nahitaezko baldintzak:

- a) Desgaitasuna eta/edo mendekotasuna aitortzeko ebazpenaren ondoren indarrean dagoen gidabaimena izatea.
- b) Egokitu behar den ibilgailuaren zirkulazio-baimena izan beharko du.
- c) Egokitu behar den ibilgailuaren titularra izan beharko du.

Baldintza horiek betetzetik salbuetsiko dira 18 urtetik beherako eskatzaileak edo, 18 urtetik gorakoa izanda, zirkulazioari buruzko araudi orokorraren arabera edozein gidariri eska dakizkikeen gaitasun psikofisikoak ez dituztenak.

Kasu horretan, ibilgailuaren titularra ezkontidea, aurreko edo ondorengo ahaidea izan beharko da, odol-ahaidetasuneko bigarren mailara artekoa (aita/ama, semea/alaba, aitona/amona, biloba), edo albokoa, odol-ahaidetasuneko bigarren mailara artekoa (anaia/arreba).

Ibilgailua eskatzailearen garraio pertsonalerako eta erabilera pribaturako izatea.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira erabilera profesionalerako edo enpresen jabetzako

- g) 22 13 Productos de apoyo para la lectura, la escritura y el dibujo. Software para el procesamiento de texto y multimedia (22 13 39).
- h) 22 18 Productos de apoyo para grabar, reproducir y presentar información sonora y visual.
- i) 22 21 Productos de apoyo para comunicación cara a cara.
- j) 22 33 Ordenadores y terminales. Software de gestión (22 33 12).
- k) 12 12 Accesorios y adaptaciones de vehículo.

3. En el caso de adaptación de vehículos a motor (clase 12, subclase 12):

La persona solicitante deberá:

- a) Estar en posesión del permiso de conducir en vigor, posterior a la resolución del reconocimiento de discapacidad y/o dependencia.
- b) Poseer el permiso de circulación del vehículo objeto de adaptación.
- c) Ser titular del vehículo objeto de adaptación.

Se exceptúan estos requisitos cuando la persona solicitante es menor de 18 años o siendo mayor de 18 años, carezca de las aptitudes psicofísicas exigidas a toda persona conductora según la normativa general de circulación.

En este caso, la persona titular del vehículo deberá ser cónyuge, ascendiente o descendiente hasta el segundo grado de consanguinidad (padre/madre, hijo/a, abuelo/a, nieto/a), o colateral de segundo grado de consanguinidad (hermano/a).

El vehículo tendrá que destinarse al transporte personal y uso privado de la persona solicitante.

Quedan excluidas del ámbito de esta convocatoria las adaptaciones de aquellos





ibilgailuen egokitzapenak.

vehículos destinados a uso profesional o vehículos propiedad de empresas.

6. oinarria. Baldintza zehatzak.

Aurreko 1. atalean jasotako baldintza orokorrezt gainera, dirulaguntza hauen eskatzaileek oinarri hauetako I. eranskineko katalogoetan produktu bakoitzerako ezarritako baldintza zehatzak bete behar dituzte.

Alboko Esklerosi Amiotrofiakoa eta beste gaixotasun edo prozesu konplexu eta itzulezin batzuk dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko urriaren 30eko 3/2024 Legearen eta zainketen prozesu atzeraezinak eta konplexutasun handikoak definitzen dituzten irizpideak ezartzen dituen urriaren 28ko 969/2025 Errege Dekretuaren arabera, lege horren aplikazio-eremuan sartutako pertsonen oinarri hauen I. eranskinean jasotako katalogoan laguntza-produktu bakoitzerako adierazitako baldintza espezifiko guztiak betetzen dituztela jotzen da.

7. oinarria. Eskabideak aurkeztea.

1. Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea —inoiz ere ez 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen—, eta foru-dekretu hau indarrean dagoen bitartean iraungo du zabalik, hau da, 2027ko abenduaren 31era arte.

2. Dirulaguntza-eskabideak leku hauetan aurkeztuko dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.
- Gizarte Ekintza Sailaren erregistroan (Lersundi kalea 14, beheko solairua, 48009 Bilbo).
- Laguntza - Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan (Diputazio kalea 7, beheko solairua,

Base 6. Requisitos específicos.

Además de los requisitos generales recogidos en el apartado 1 anterior, las personas solicitantes de estas subvenciones deberán reunir los requisitos específicos señalados para cada producto de apoyo en el catálogo incluido en el Anexo I de las presentes bases.

En virtud de la Ley 3/2024, de 30 de octubre, para mejorar la calidad de vida de personas con Esclerosis Lateral Amiotrófica y otras enfermedades o procesos de alta complejidad y curso irreversible y del Real Decreto 969/2025, de 28 de octubre, por el que se establecen los criterios que definen los procesos irreversibles y de alta complejidad de cuidados, se considera que las personas incluidas en el ámbito de aplicación de dicha ley cumplen todos los requisitos específicos señalados para cada producto de apoyo en el catálogo incluido en el Anexo I de las presentes bases.

Base 7. Presentación de solicitudes.

1. El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia, y nunca antes del 1 de enero de 2026, y se mantendrá durante la vigencia del presente decreto foral, esto es, hasta el 31 de diciembre de 2027.

2. Las solicitudes de subvención se presentarán en:

- La Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.
- El registro del Departamento de Acción Social en C/ Lersundi nº 14, bajo, 48009 Bilbao.
- Laguntza - Oficina de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia en C/ Diputación 7, planta baja,





48009 Bilbo).

- El resto de los registros departamentales y las oficinas GERTU de la Diputación Foral de Bizkaia. Puede consultar las direcciones en:

<http://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro>

- Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako erregistroak.

48009 Bilbao.

- El resto de los registros departamentales y las oficinas GERTU de la Diputación Foral de Bizkaia. Puede consultar las direcciones en:

<http://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro>

- Los registros contemplados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

8. oinarria. *Eskabideekin batera aurkeztu beharreko agiriak.*

1. Dirulaguntza-eskabideak eredu normalizatuan beteko dira. Eredu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian eta egoitza elektronikoan (S880) dago argitaratuta.

2. Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Laguntza-produktu bat eskuratzeko beste erakunde baten (Osasun Saila -Osakidetza-, Etxebide, Surbisa...) dirulaguntza jaso badaiteke, erakunde horrek emandako ebazpena aurkeztu beharko da.

b) Eskatzailearen eta, hala badagokio, bizikidetz-unitateko gainerako kideen diru-sarrerak ez badira agertzen Bizkaiko Foru Aldundiaren datu-baseetan, diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3. Etxeko Arreta Zerbitzuak edo administrazio-unitate eskudunak eskabideak eta erantsitako dokumentazioa aztertuko ditu eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatuko du, bitarteko telematikoen bidez administrazio publikoetatik jasotzen duen informazioaren arabera, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bitartez, betiere interesduna modu arrazoituan aukera horren kontra agertzen ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan

Base 8. *Documentación a aportar junto con las solicitudes.*

1. Las solicitudes de subvención se cumplimentarán en el modelo normalizado que figura publicado tanto en la página web como en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (S880).

2. Junto con las solicitudes se deberá aportar la siguiente documentación:

a) En el supuesto de que la adquisición del mismo producto de apoyo sea subvencionable por otra entidad o institución (Departamento de Salud -Osakidetza-, Etxebide, Surbisa...), se deberá presentar copia de la correspondiente resolución.

b) Si los ingresos de la persona solicitante, y en su caso, de las demás integrantes de la unidad de convivencia no constaran en las bases de datos de la Diputación Foral de Bizkaia, se deberá aportar certificado de ingresos.

3. El Servicio de Atención en el Hogar o unidad administrativa competente examinará las solicitudes y la documentación que se adjunta y verificará el cumplimiento de los requisitos establecidos en la convocatoria, conforme a la información que recabe por medios telemáticos de las diferentes Administraciones Públicas, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, salvo que la persona interesada se opusiera a ello de forma motivada, en cumplimiento del artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del





ezarritakoarekin bat. Kasu horretan, interesdunari berari eskatuko dio datu horiek aurkezteko.

4. Arrazoi teknikoengatik elkarrengarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango zaizkio.

9. oinarria. *Prozeduraren instrukzioa.*

1. Eskabidea bidali ondoren, Gizarte Ekintzako Foru Sailari atxikitako administrazio-unitate eskudunak egiaztatuko du ea eskabidea behar bezala beteta dagoen.

Eskabidea ondo bete gabe aurkezten bada edo aurreko oinarrian adierazitako agirietako bat falta bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da errekerimendua), hamar (10) egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

2. Eskabidea aurreko letran adierazi bezala egiaztatu eta eskatzailearen egoera ekonomikoa ebaluatu ondoren, dirulaguntza emateko proposamena egingo zaio Gizarte Ekintzako foru diputatuari, edo, hala badagokio, dirulaguntza ukatzeko ebazpen-proposamenaren aurretik beharrezkoa den entzunaldiaren izapidea egingo da.

10. oinarria. *Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko,

Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en cuyo caso se podrá requerir a la persona interesada para que los aporte.

4. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible se le podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Base 9. *Instrucción del procedimiento.*

1. Remitida la solicitud, la unidad administrativa competente adscrita a este Departamento Foral de Acción Social verificará que la solicitud se encuentra debidamente cumplimentada.

En el supuesto de que la solicitud se hubiera presentado incompleta o faltara alguno de los documentos señalados en la base anterior, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá dictarse en los términos previstos por el artículo 21 de la citada Ley 39/2015.

2. Una vez verificada la solicitud en la forma prevista en el párrafo anterior y realizada la evaluación de la situación económica de la persona solicitante y la verificación del cumplimiento de los requisitos generales y específicos exigidos en la convocatoria, se realizará la correspondiente propuesta de concesión a la diputada foral de Acción Social o, en su caso, se emitirá el preceptivo trámite de audiencia previo a la propuesta de resolución denegatoria.

Base 10. *Cálculo de la cuantía de la subvención.*

1. Para calcular la cuantía de la subvención,





eskatutako produktu bakoitzaren dirulaguntzaren zenbateko maximoari (LPDZM) aplikatuko zaion indize bat (I) finkatuko da.

Indize horren balioa (I) kalkulatzeko, bizikidetzako unitatearen urteko per capita diru-sarrerak 365 egunez zatitu behar dira; zenbateko horren %1 aplikatu beharreko indizearen balio bihurtuko da.

2. Arau orokor gisa, diru-sarrerak kalkulatzeko, dirulaguntza eskatzen den egunean dagoen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpena —edo aitortpenak— hartuko da kontuan; bestela, aitortpenik ez dagoelako edo ahalmen ekonomikoa ondo zehazteko egokitzat jotzen direlako, behar bezala formalizatutako diru-sarreraren (mota guztietakoak) ziurtagiriak erabiliko dira.

Dokumentazio hori osatzeko, eskatzaileak eta bizikidetzako unitateko gainerako kideek egindako sarreraren eta ondasunen aitortpen bat aurkeztu ahal izango da; baita urteko sarrerak behar bezala balioesteko beharrezkoak diren agiri guztiak ere.

